

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak izan ezik. 2023ko abuztua

Ostatu-gauak % 3,1 gehitu dira landetxeetan, eta % 21,8 apartamentu turistikoetan, Euskal AEn 2023ko abuztuan

Aterpetxe turistikoetako ostatu-gauak ere % 17,5 igo dira

Eustaten datuen arabera, **2023ko abuztuan**, Euskal AEko **landetxeetako** sarrerak % 1,4 jaitsi dira, iazko hil beraren aldean; ostatu-gauak, berriz, % 3,1 igo dira. Urtetik urterako aldakuntza horiek kontuan hartuta, abuztuan, 26.931 sarrera izan dira, eta 98.305 ostatu-gau.

Euskal AEko landa-ostatueta sarrerak, ostatu-gauak, batez besteko egonaldia eta okupazio-mailak. Abuztua 2023

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		gelaka	
	2023/08	m/m-12 (%)	2023/08	m/m-12 (%)	2023/08	2022/08	2023/08	p.p. *	2023/08	p.p. *
EUSKAL AE	26.931	-1,4	98.305	3,1	3,65	3,49	65,6	1,9	70,8	1,7
Estatukoak	20.066	-3,0	76.978	0,4	3,84	3,71	-	-	-	-
Atzeritarrak	6.865	3,4	21.327	14,2	3,11	2,81	-	-	-	-
Araba/Álava	4.192	-3,6	15.698	20,4	3,74	3,00	45,0	6,9	52,3	6,3
Estatukoak	3.333	-3,2	12.684	20,9	3,81	3,05	-	-	-	-
Atzeritarrak	859	-5,2	3.014	18,7	3,51	2,80	-	-	-	-
Bizkaia	8.575	-2,2	31.944	3,9	3,73	3,51	70,1	2,3	73,8	2,2
Estatukoak	6.355	-5,6	24.175	-0,8	3,80	3,62	-	-	-	-
Atzeritarrak	2.220	8,8	7.769	22,0	3,50	3,12	-	-	-	-
Gipuzkoa	14.164	-0,3	50.663	-1,7	3,58	3,63	73,0	-0,6	78,1	-1,0
Estatukoak	10.378	-1,2	40.119	-4,0	3,87	3,98	-	-	-	-
Atzeritarrak	3.786	2,5	10.544	8,0	2,78	2,64	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hila bate berarekiko portzentaia puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabeteen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hila bate berarekin alderatuta (m-12)

Data 2023ko Irailaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Atzeritar jatorriko sarrerak, iazko abuztuaren aldean % 3,4 igo, eta 2023ko abuztuan Euskal AEko landetxeetan izandako sarrera guztien % 25,5 izan dira. Atzeritar jatorriko ostatu-gauak, berriz, 2022ko abuztuaren aldean % 14,2 igo, eta guztizkoaren % 21,7 dira.

Lurralde historikoka, Araban % 3,6 jaitsi dira sarrerak, Bizkaian % 2,2 eta Gipuzkoan % 0,3. Ostatu-gauak % 20,4 gehitu dira Araban, eta % 3,9 Bizkaian; Gipuzkoan, aldiz, urtetik urtera % 1,7 gutxitu dira.

Establezimendu mota horretako batez besteko egonaldia 3,65 egunekoa izan da Euskal AEn abuztuan, 2022ko hil bereko batez bestekoaren gainetik, orduan 3,49 egunekoa izan baitzen. Batez besteko egonaldiak adierazten du zenbat egun ematen dituzten bidaiariak batez beste gaua igarotzen duten establezimendu bakoitzean, eta ez Euskal AEn guztira zenbat egun ematen dituzten.

Plazen eta gelen betetze-mailak ehuneko 1,9 eta 1,7 puntu igo dira urtetik urtera, hurrenez hurren. Plazen betetze-maila % 65,6 izan da, eta gelena % 70,8.

Apartamentu turistikoetan, 2023ko abuztuan, 26.124 sarrera izan dira, eta 83.281 ostatu-gau ekarri dituzte. Iazko abuztuko datuekin alderatuta, sarrerak % 24,1 gehitu dira, eta ostatu-gauak % 21,8.

Apartamentu turistiko esaten zaio ustiapeneko enpresa-unitate bakar batek bloke edo multzo gisa eskaintzen duen ostatu-unitate bakoitzari. **Ez dira epigrafe honetan sartzen erabilera turistikoko etxebizitzak**, hau da, helburu turistikoetarako aldi baterako eskaini, merkaturatu edo lagatzen diren etxebizitza partikularrak.

Sarrerak, gauraldiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak Euskal AEko apartamentu turistikoetan. Abuztua 2023

	Sarrerak		Gauraldiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		apartamenduka	
	2023/08	m/m-12 (%)	2023/08	m/m-12 (%)	2023/08	2022/08	2023/08	p.p. *	2023/08	p.p. *
EUSKAL AE	26.124	24,1	83.281	21,8	3,19	3,25	55,7	4,1	72,2	6,7
Estatukoak	15.315	18,0	50.694	14,9	3,31	3,40	-	-	-	-
Atzeritarrak	10.809	33,8	32.588	34,3	3,01	3,00	-	-	-	-
Araba/Álava	2.105	-12,3	10.805	-5,7	5,13	4,77	32,5	-1,9	69,9	0,3
Estatukoak	1.657	-13,0	8.856	-9,5	5,34	5,14	-	-	-	-
Atzeritarrak	448	-10,0	1.949	16,9	4,35	3,35	-	-	-	-
Bizkaia	16.093	19,7	41.949	19,8	2,61	2,60	66,6	4,2	81,2	4,8
Estatukoak	9.434	18,5	24.725	15,2	2,62	2,70	-	-	-	-
Atzeritarrak	6.659	21,5	17.224	27,1	2,59	2,47	-	-	-	-
Gipuzkoa	7.925	52,0	30.527	39,3	3,85	4,20	57,3	6,4	64,8	11,2
Estatukoak	4.223	35,5	17.113	32,9	4,05	4,13	-	-	-	-
Atzeritarrak	3.703	76,6	13.415	48,4	3,62	4,31	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2023ko Irailaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistikoko Hartzaileen Inkesta

Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrera guztien % 41,4 eta ostatu-gau guztien % 39,1 atzeritar jatorriko bisitarienak izan dira. Izan ere, abuztuan, urtetik urterako % 33,8ko eta % 34,3ko hazkundeak izan dituzte, hurrenez hurren.

Apartamentu turistikoen batez besteko egonaldia 3,19 egunekoa izan da 2023ko abuztuan, 2022ko abuztuko baino txikiagoa, 3,25 egunekoa izan baitzen Euskal AE osoan. Araban, establezimendu mota horretako batez besteko egonaldia 5,13 egunekoa izan da, Gipuzkoan 3,85 egunekoa eta Bizkaian 2,61 egunekoa.

Plazen betetze-maila % 55,7 izan da Euskal AEn, hau da, 2022ko abuztuaren aldean ehuneko 4,1 puntu gehiago. Apartamentuen betetze-maila, aldiz, ehuneko 6,7 puntu gehitu da, eta, hala, % 72,2ra iritsi da.

Euskal AEko **aterpetxe turistiko**ei dagokienez, 2023ko abuztuan sarrerek urtetik urterako % 22,1eko gehikuntza izan dute; guztira 33.941 sarrera izan dira, eta 61.703 ostatu-gau ekarri dituzte. Bizkaian 34.419 ostatu-gau izan dira, Gipuzkoan 24.476 eta Araban 2.808.

Aterpetxe turistikoetako egonaldia batez besteko iraupena 1,82 egun izan da 2023ko abuztuan Euskal AE osoan, eta plazen betetze-maila, urtetik urtera ehuneko 6,9 puntu igo, eta % 57,8ra iritsi da.

Informazio-oharra

Hil honetan, ETHaren erantzun-tasa % **89,2** izan da landetxeetan; % **82,7** apartamentu turistikoetan, eta % **77,9** aterpetxe turistikoetan. Eustatek eskerrak eman nahi dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei, egindako ahaleginagatik.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62